


# 5 GUNEA. ASTONDOKO DUNA FOSILAK. PUNTO 5. DUNAS FOSILES DE ASTONDO

## BALORAZIOA

*Interesa: Zientifikoa eta didaktikoa.*  
*Kategoria: Eskualde mailakoa.*  
*Kontserbazioa: Ona.*  
*Antzeko beste gune batzuk: Arena, Areta eta Lagako hondartzak.*  
*Irispidea: Plentziara iritsi eta Plentzia-Gorliz hondartzaren ertzetik doan errepidea azkeneraino segitu.*



## VALORACION

*Interés: Científico y didáctico.*  
*Categoría: Regional.*  
*Conservación: Buena.*  
*Otros puntos semejantes: Playa de La Arena, Las Arenas y Laga.*  
*Accesos: Llegando a Plentzia, continuar hasta el final de la carretera que bordea la playa Plentzia-Górliz.*




Astondoko metaketa eoliko hauek, kostaldeko duna-kordoi koaternario baten zatirik nabarmenena dira, dunak fosilduta eta landarediz kolonizatuta egonik. Aurrealdea haizeak erosionatuta daukate eta bertan azaltzen da sedimentazio-medio honetan hain karakteristikoa den orri gurutzatuzko egitura. Fosilizazioa, berriz, karbonatoaren prezipitazioak ekarri du, hare aleak zementatu egin bait ditu apur bat.

Deskribatzen den zona, metaketa eoliko zabalago baten parterik ikusgarriena besterik ez da, izan ere zona osoak Astondo mendiaren hegalparte bat eta Sanatorio atzean Gorniz herriko errepiderainoko zona guztia hartzen bait du. Metaketa guztia landarediz kolonizatuta dago eta ebakiduraren goialdeko orrietan barne hartuta ere badaude landare-hondakinak, segur aski itsas pinuarenak.

Astondoko duna fosilak, estuario-ingurunean loturiko metaketa koaternarioen adierazgarri bat dira. Hasieran konplexu zabalago baten parte ziren, bertan gaurko hondartza, duna-kordioa eta aparkalekuraino iristen zen aintzira gazikaraz estalitako hondartza atzeko zona hareatsua sartzen zirelarik. Alboetatik sub-ingurune hauek ibai-bokaleko bazter hareatsuetan eta padura-lekuetan segitzen zuten. Gaur egun ingurune hau guztiz anderatuta aurkitzen da, eraiki diren hainbat egituren, bereziki Sanatoriorako errepidearen eraginez.

ASTONDOKO DUNEN MAPA  
GEOLOGIKOA



MAPA GEOLOGICO DE LAS DUNAS  
DE ASTONDO

Los depósitos eólicos de Astondo constituyen la parte más visible de un cordón de dunas costeras cuaternarias, fosilizadas y colonizadas por vegetación. La zona frontal está erosionada por la acción del viento, ofreciendo un corte en el que aparece la estructura en láminas cruzadas, característica de este tipo de medios sedimentarios. La fosilización se debe a la precipitación de carbonato que ha cementado levemente las arenas.

La zona descrita ocupa parte del monte Astondo y toda la superficie situada tras el sanatorio, hasta la carretera que da acceso al pueblo de Gorniz. Todo el depósito está cubierto por vegetación, pino marítimo principalmente.

Las dunas fósiles de Astondo constituyen un indicador del desarrollo de los depósitos cuaternarios ligados a medios de estuario. Originalmente, formaban parte de un complejo que constaba de: la playa actual, el cordón de dunas y la zona trasplaya de naturaleza arenosa, ocupada por una laguna salobre que se extendía aproximadamente hasta donde hoy se encuentra el aparcamiento. Lateralmente, estos subambientes se continuaban con los márgenes arenosos de la desembocadura de la ría y las superficies marismales.

En la actualidad, este medio se encuentra totalmente degradado a raíz de la construcción de diferentes estructuras, principalmente la carretera del sanatorio.